


Ur birarazlea

Nola funtzionatzen du gurpil hidraulikoak?

Materialak

- Guraizeak
- Paperezko plater bat
- Arkatz bat
- Iturriko ura



Zer egin

1. Ebaki 10 cm-ko diametroko zirkulu bat paperezko platerean.
2. Marraztu 1 cm-ko diametroko zirkulu bat paperaren erdian.
3. Egin 2,5 cm-ko sei ebaki zirkuluaren ertzaren inguruan. Ez ebaki zirkuluaren erdiraino.
4. Tolestu atal horietako bakoitza erditik; tolesak tente geratu behar du.
5. Sartu arkatza zirkuluaren erdian. Gurpil hidraulikoa egin duzu!
6. Jarri gurpil hidraulikoaren tolesak iturriaren azpian, eta ireki iturria poliki-poliki. Gero gehiago ireki dezakezu iturria, gurpil hidraulikoarekin probak egiteko; baina poliki hasi. Zer gertatzen da ura gurpilera erortzen denean?

Zer gertatzen da?

Gurpil hidraulikoa iturri azpian jarritakoan, biraka hasi da. Mugitzen ari den ura energia-iturri moduan erabil daiteke. Gurpilari atxikitako ardatza engranajeak biratzeko erabil daiteke. Engranajeak dira ertzetan hortzak dituzten gurpilak, eta, elkartzean, elkar birarazten dute. Engranajeek lan asko egin ditzakete. Ikusiko zenituen errota zaharrak ibai-ertzetan. Errotariet ibai-uraren energia erabiltzen zuten artoa eta zerealak irin bihurtzen zituzten makinak birarazteko.

